

Hurrengo Horizon Europe esparru-programaren proposamenaren argitalpena

Europako Batzordeak ikerketa eta berrikuntzarako hurrengo esparru-programaren proposamena aurkeztu du. 2021-2027 aldirako izango da eta “*Horizon Europe*” izango du izena.

Hauek izango dira hurrengo esparru-programaren helburu nagusiak:

1. **Europar Batasunaren (EB) oinarri zientifiko eta teknologikoak sendotzea.**
2. **Europako berrikuntzarako gaitasuna, lehiakortasuna eta enplegua sustatzea.**
3. **Herritarren lehentasunei erantzutea eta EBren eredu sozioekonomikoa eta balioak babestea.**

Egungo “*Horizon 2020*” esparru-programak bezala, “*Horizon Europe*” programa berriak hiru oinarri izango ditu:

- **I. oinarria.** Zientzia irekia (25.800 milioi euro jasoko ditu).
- **II. oinarria.** Erronka orokorrak eta industriako lehiakortasuna (52.700 milioi euro); sektore arteko ikuspegia emango die I+B jarduerari, bost klusterren bidez:
 1. Osasuna: 7.700 M €.
 2. Gizarte inklusibo eta seguruak: 2.800 M €.
 3. Arlo digitala eta industria: 15.000 M €.
 4. Klima, energia eta mugikortasuna: 15.000 M €.
 5. **Elikadura eta baliabide naturalak: 10.000 M €**Horrez gain, II. oinarrian sartzen dira Ikerketa Zentro Bateratuaren (JRC) jarduerak; 2.200 milioi euro bideratuko dira horietara.
- **III. oinarria.** Berrikuntza irekia (13.500 milioi euro).

EU funding for Research and Innovation 2021-2027- factsheet (https://ec.europa.eu/commission/sites/beta-political/files/budget-may2018-research-innovation_en.pdf)

Horizon Europe programaren webgune berria (https://ec.europa.eu/info/designing-next-research-and-innovation-framework-programme/what-shapes-next-framework-programme_en)

EB prentsa-oharra: Batzordeak orain arteko ikerketa- eta berrikuntza-programa handinahiena proposatu du (http://europa.eu/rapid/press-release_IP-18-4041_es.htm)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkautē (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .
berri@elika.eus (<mailto:berri@elika.eus>)